

2020 COVID19: TURISMO ETA OSTALARITZARENZAKO EUSKO JAURLARITZAKO LAGUNTZA

Araua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/05/2002056e.pdf>

Epea: 2020ko ekainaren 26an amaituko da

Onuradunak: Negozio bolumenari dagokionez turismo eta/edo jatetxeetako jarduera duten autonomo, txikizkako mikroenpresa eta empresa txiki, ondasun erkidego eta sozietate zibilak. Hau da, turismo-ostatuko enpresak, ostalaritzakoak eta jatetxeak, bitartekaritzakoak (agentzia bidaiak, erreserbako zentralak, turismo-operadoreak...), garraio turistikokoak, turismo aktibokoak, biltzarren antolatzaileak eta turismo-gidak antolatzen dituztenak.

Baldintzak:

- Egoitza fiskala eta soziala, bai eta lantokia ere, Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.
- Haren jarduera erabat eten duena martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, edo salmenten %75etik gorako murrizketa izan duena (salmentak 2020ko martxoaren 14tik apirilaren 13ra, 2019ko aldi berarekin alderatuta; edo, ezinezkoa balitz, 2019an ez zelako aktibo egon, alarma-egoera deklaratu aurreko hilabetearekin alderatuta).
- Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren egunean egotea

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK

- Jarduera egiten den **lokalaren alokairuaren** ordainketa (establezimendu bakarrekoa), betiere eskatzailearen etxebizitzaren zati ez bada, errentatzailearekin ahaidetasunik ez badago, eta beste enpresa batekin partekatutako espazioa ez bada.
- Jarduera garatzen den **establezimendua erosteagatiko maileguen kuoten ordainketak**.
- 2020ko otsailaren 15a eta martxoaren 14ren artean erositako **produktu galkor edo freskoz** hornitzeko erosketaren gastua.
- Hurrengo **gastu ohiko hauek**:
 - 1 - Energia-hornidurak, telekomunikazio-zerbitzuak eta aseguru-primak
 - 2 - Ostalaritza eta/edo turismo arloko elkarteetako afiliazio-kuotak.
 - 3 - COVID-19rekin lotutako laguntzen aholkularitza- eta kudeaketa-zerbitzuak, martxoaren 14tik laguntza eskatu arte, 150 euroko mugarekin.
- 2019ko urtarrilaren 1etik, 2020ko otsailaren 14ren bitartean gindako inbertsioak finantzatzera bideratutako **maileguak amortizatze**ko kuotak. Barne hartzen da leasing bidezko ibilgetua erostea.

a) eta b) eta d-1) eta d-2) eta e) kasuetan, gehienez ere ondoz ondoko 3 hilabeteko diru-laguntza emango da martxoaren 14tik abuztuaren 31ra bitartean.

Laguntza inbertsio onargarriaren % 100ekoa izan daiteke (BEZik gabe), gutxienez 750 euroko gastua aurkeztu beharko da (BEZik gabe), eta gastuetako bat ere ezingo da izan 100 eurotik beherakoa (BEZik gabe). Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da 3.000 eurotik gorakoa izango.

Eskabide bakarra aurkeztuko da **erakunde bakoitzeko**, eta gastuak lantoki edo establezimendu bakar batenak izango dira.

Nahitaezkoa da **eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea**; horretarako, identifikazio elektronikorako bitartekoren bat eduki behar da (IZENPE, Itsasontzien jokoa, NAN elektronikoa), edo eskaera izapidetzeko baimena eman behar zaio bitarteko hori duen hirugarren bati.

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2020/covtur/web01-tramite/eu/>

Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa

- a) Eskabide elektronikoan agertzen diren inprimakiak betetzea
 - b) Aurkeztutako gastuen zerrenda, kontzeptua, denbora-eremua eta zenbatekoa zehaztuta (BEZik gabe).
 - c) IFKa identifikazio fiskaleko txartela pertsona juridikoa bada.
 - d) Eratze-eskriturak eta ondorengo aldaketak, eratze-kontratua aurkeztuko da, ondasun-erkidegoaren edo sozietate zibilaren kasuan.
 - e) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta eta baje ziurtagiri historikoa (Ogasunean eskatu)
 - f) Alta emanda egotea Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren kontrol ekonomikoko bulegoko Hirugarrenengo Erregistroan (ordainketa bankuko kontu korrante zenbaki horretan egin ahal izateko).
- <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>

Laguntza jasotzen bada, 2021eko urtarrilaren 29a baino lehen aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Atxikitu <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/> orrian

- a) Diruz lagundutako gastuen zerrenda: IFZ, enpresaren izen soziala, jaulkipen-data, kontzeptua, zenbatekoa (BEZik gabe) eta ordainketa data (100 eurotik gorako zenbatekoa eta kodifikatu gabeko kontzeptuak).
- b) Jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen erantzukizunpeko adierazpena, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Aurrerago Administrazioak dokumentazio gehiago eska dezake (fakturak, alokairuen kontratuak...)

Laguntza bateragarria da beste diru-laguntza batzuekin, betiere diruz lagundutako aldiak kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada. Gaindituz gero, agindu honetan emandako laguntzari gaindikinarekin zenbatekoa kenduko zaio.

Aplikazio informatikoari buruzko kontsultak: 012 eta 945018000 / atmerkataritza@ejie.eus

Puntuazio-irizpideak: eskatutako zenbatekoa aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa bada (7,5 milioi euro), araudian kontsulta ditzakezuen zenbait irizpide hartuko dira kontuan laguntzak ematerako orduan (10-12 orr.).